

Donostia. 2024ko urriaren 29a.

Museum Cemento Rezolak “Eduardo Torroja Añorgan” erakusketa inauguratu du

Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak sustatutako ekimenak bat egiten du Eduardo Torroja Miret bide-ingeniariak Añorgako pilotalekua inauguratu zueneko 75. urteurrenarekin.

Museum Cemento Rezolak eta **Heidelberg Materialsek** Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoarekin batera komisionatutako “Eduardo Torroja Añorgan” erakusketa inauguratu dute gaur, Eduardo Torroja Miret bide-ingeniariak egindako Añorgako Pilotalekuaren inaugurazioaren 75. urteurrenarekin bat etorriz.

Erakusketa horrek Eduardo Torrojaren irudia, bere diseinuen filosofia eta hormigoi armatuz proiektatutako eta gaur egun ere mirespena eragiten duten bere lan enblematikoenak hurbiltzen dizkigu.

Ingeniariak dekorazioa alde batera utzi zuen estiloa garatu zuen, itxuraz sinpleak ziren baina egiturazko soluzio konplexu, original eta liluragarriak estaltzen dituzten obra garbiak sortzeko: teknikaren eta materiaren menderatzea eta geometriaren ezagutza handia.

Ingeniariaren bi obra Añorgan egotea benetako oparia da donostiarrentzat, eta horregatik, erakusketak Añorgan dituen bi obretan sakontzen du: pilotalekuan eta bolatokian.

Eskala errealean 3Dn erreproduzitutako bi maketek aukera ematen digute Torrojak eraikuntza horiei eman zizkien egiturazko soluzioak ikusteko, ingeniari horren bereizgarri: hormigoi armatuzko estalki ondulatu liluragarriak.

Prensa oharra

Erakusketa José María Echarri Heidelberg Materialsen ohorezko presidente eta bozeramaileak, Rafael Pascual Heidelberg Materials Añorga eta Museum Cemento Rezolako zuzendariak eta Carmen del Río López Euskadiko Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien Elkargoko dekanok inauguratu dute.

“Eduardo Torroja Añorgan” 2025eko maiatzaren 31ra arte egongo da ikusgai.

Sustatzailea: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.

Laguntzaileak: Pasaiaiko Portua, Pacadar, CEDEX, ANTA, Eduardo Tejera Torroja eta Gorga Añorgako Historia Mintegia.

Tailerrak

Museoak lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako hezkuntza-programa espezifiko diseinatu du, Eduardo Torrojaren obra ezagutarazteko helburuarekin. Programa museoaren webgunean kontsulta daiteke: www.museumcementorezola.org

Hitzaldi-zikloa

Erakusketaren esparruan, Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak antolatutako hitzaldi zikloa hartuko du Museum Cemento Rezolak.

Lehenengo hitzaldia, **“Eduardo Torroja, ingeniartzako heroi baten bidaia inspiratzailea”** izenburupean, urriaren 30ean izango da, Ignacio Payá Zaforteza, Bide, Ubide eta Portu Ingeniari eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko katedradunaren eskutik.

Azaroaren 28an, **“Zer gertatu zen Aireko Zubibidearekin?”** bigarren hitzaldia emango du Jorge Bernabeu Larena Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari Doktore eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko irakasleak.

“Eduardo Torroja Kataluniako Pirinioetan” izango da Xavier Fontek, Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari eta Alfa Polaris enpresako zuzendariak, 2025eko urtarrilaren 30ean emango duen hitzaldiaren izenburua.

Zikloko laugarren eta azken hitzaldia otsailaren 27an emango dute Mike Schlaich doktoreak, Bide, Ubide eta Portu Ingeniari, Berlingo Technische Universität unibertsitateko katedradun eta Schlaich Bergermann Partnerren bazkideak; eta Pepa Casinello doktore arkitektoak, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko katedradun eta Eduardo Torroja Fundazioko zuzendari gerenteak, **“Eduardo Torroja: zubiak eta ondarea / Gizakia eta bere ondarea”** izenburupean.

Prensa oharra

Maiatzaren 12an, Caminos Euskadik (Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak) Bilbon duen egoitzan, hitzaldi-ziklo honi amaiera emateko, Juan José Jorquera Luecergak **“Torrojerapia: pentsatzeko denbora”** izeneko hitzaldia emango du.

Aurreikusitako bost hitzaldiak 19:00etan hasiko dira.

Museum Cemento Rezolari buruz

Museuma oso toki eta eraikin berezian dago, Cementos Rezolaren fabrikak 1948an langileen seme-alabentzat eraiki zuen eskola zaharrean. 1997an, eskola erabilerarik gabe geratu ondoren, fabrikak Peña Ganchegui estudioari agindu zion hura birmoldatzeko, museo gisa izango zuen funtzio berrira egokitzeke. Erabilera berria, baina helburu bera: inguruko jendearen artean ezagutza eta kultura zabaltzea.

Izan ere, eraikina, fabrikak bere ingurunearekin duela 170 urtetik duen konpromiso sozialaren sinbolo da. Añorgako **Heidelberg Materials** fabrika da hiriko industriaren adierazle bizi bakarra, eta beti izan du konpromiso sendoa eta lotura zuzena haren historiarekin; izan ere, bertako labeetatik atera da Euskadiko azken mendeko obrarik adierazgarrienei bizia eman dien zementua.

Museoak lehen hezkuntzako ikasleentzako berariazko hezkuntza-programa bat du, baita bigarren hezkuntzarako eta lanbide- heziketarako jarduerak ere. Ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzuteko asmoz, bisita komentatuak eskaintzen dira bertako espazio eta tailer egokitueta.

Heidelberg Materials konpainiaren Espainiako datuak

Heidelberg Materials eraikuntzarako material eta soluzio integratuen munduko fabrikatzaile handienetakoa da, eta posizio liderrak ditu zementuaren, agregakinen eta hormigoiaeren merkatuan. **Heidelberg Materials** aitzindaria da karbonoaren neutraitasunerako bidean, eta 2050erako hormigoi guztia, gure azken produktua, karbonoan neutroa izateko helburua du.

Espanian, enpresaren presentzia 2 zementu fabrikak, 5 harrobik eta 4 hormigoi plantak osatzen dute, eta horiei esker integrazio bertikal ezin hobea du gure merkatu-eremuan. 170 urteko tokiko esperientziak gure bezeroei hiri eta azpiegitura seguruak, jasagarriak eta abangoardistak eraikitzeke aukera ematen duten kalitatezko eraikuntza-soluzioak eskaintzean oinarritutako lidergoa bermatzen du. Gaur egun, gure enpresak bere ekintza guztien erdigunean jartzen ditu ingurumenarekiko, deskarbonizazioarekiko eta ekonomia zirkularrarekiko erantzukizuna.

Museum Cemento Rezolaren irekiera ordutegia

Asteartetik larunbatera zabalik, 10:00etatik 14:00etara.

Astelehen, igande eta jaiegunetan itxita.
Sarrera doan.

Heidelberg Materials

Prensa Kabinetea

MBN Comunicación, S.L.

Josean Aguado

Telefono-zenbakia: 94 435 63 30

Helbide elektronikoa: j.aguado@grupombn.com